

Antxiñako fotografixia



Oñatin egin zan belodromua

Gure artian txirrindularitzarako zaletasuna aspaldikua da. Famaiak izan ziran gerra aurreko korredore oñatiarrak, **Benito Aiastui**, **Klaudio Leturiaga** eta beste asko. Entzute haundikuak Arantzazurako igoerak eta ziklo-kross maillako karrerak. Zarata gehixen atara ebena, jakiña, 1953ko martixaren 8xan Oñatin ospatu zan *Munduko IV. Ziklo-Kross Txapelketia* izan geben. Handik puntuko ekin otzan oñatiar talde batek ziklismuarekin zerikusixa eukan beste lan bateri, hau da, belodromua egittiari. **Reyes Korkostegi** eta **Bizente Ugarte** promotore zirala, **Migel Elortza** eta **Rufino Moiuaren** Santa Marinako arotzerixan moldau zan zurezko belodromo hau. Goguan dogu zela montau ebein zati bat Matingo etxeosteko zelaixan, artian abenidia zabaldu barik eguen-eta. OKU (*Organizaciones Korkostegi / Ugarte*) izena emun xakon belodromo oñatiar hau Pariseko *Vel d'Hiver*-en birkixa zan.

Lanak Oñatin 1954an hasi eta hurrengo urtian Donostiako futbol-kanpuan ifiñi ebein karreratarako pistiori. Etzan hau Atotxa inguruak ezagutu ebein lehenengo belodromua; 1888xan, futbol-zelaixa egin baiño bastante lehenago, beste bat egon ei zan paraje hareittan. Gaurko fotografixa honetan inauguraziño egunian Atotxara fandako antolatzaillie eta aginttari batzuk agerketan dira: Donostiako obispua, **Jaime Font i Andreu**, belodromo barrixa bedeinkaketan; bere atzian, agintarixen artian, bestiak beste, Donostiako alkata, **Juan Pagola**, Gipuzkuako gobernadoria, **Tomas Garikano**, eta gotzaiñaren anae abadia; proiektuan modu batera edo bestera parte hartu ebein oñatiar batzuk be ikusi geinke: **Bizente Ugarte** ezkerrian, eta eskumako aldian **Jose Mari Agirrebaltzategi**, abadia, **Pedro Igartzabal**, **Anjel Santamaria** (?), **Anton Guridi Ipentza** eta **Migel Elortza**.

Inauguraziñorako txirrindulari ospetsuak ekarri ziran: **Fausto Coppi**, **Hugo Koblet**, **Federico M. Bahamontes**, **Miguel Poblet**, **Guillermo Timoner** eta abar. Baiña, orduan be eguraldi txarrak hondatu ebein neurri haundi batian astebeterako eratu zan programaziñua. Harrezkero Madrillan eta Bartzelonan montau zan 1959 eta 1960 aldera; gero, *Educación y Descanso* erakunde estatalak erosi ebein eta Madrilleko parke sindikalian urte batzuk pasau ondoren, Valentziara eruan ebein 1970 inguruan eta han emun zittuan bere azkenengo egunak.

J.E.

Fotografixa Kutxaren IV. Argazki-bildumakua da, eta argibidiak bilduma horretatik, Aloña Mendiren argitalpen batetik (1967) eta Reyes Korkostegirengandik jaso dittugu.

Antxiñako fotografixia



Goribargoittiko edurzulua

Gaurko honetan dakargun argazkixa benetan kuriosua da. Larogeitasei urte dako eta aspaldi gastau zan lanbidia erakusten dosku: **edur-batzeia**. Historia-liburutetan irakurri dogu, garai batian —izotz-fabrikarik eta frigorifikorik etzanean— hartarako egozen zulo apropos batzuetan gordeten zala edurra neguan, eta uda-partian kaleraño karriaitten zala ahal zan moduan: burdittan, mando gaiñian edo bizkarka. Gabaz edo goizian-goiz egin biharko zan karriua, bestela izotz gehixena bidetan urtuko zan-eta. Oñatin bazan **edurzulo** ezagun bat **Artzanburun**: haitzian, 1.200 metrotik gora eguen eta, emuten dauenez, muga-mugan; izan be, edurrori zala-eta, Zegama eta Segurakuakin karramarra gogorra euki ebein oñatiarrak 1762.urtian. Azkenian Arantzazuko frailliak egin bihar izan zittuain bakiak.

Ezkenkixena zera zan: kale inguruan be edurzulua eguenik. Bai, itxuria dagueenez. Fotografixan ikusten dogun kuadrilliak **Goribargoitti** baserriko etxeostian jardun eben 1910ian edurra pillatu, batu, burdixan kargau, inguruan zan edurzulora eruan eta han ondo sakaketan, hurrengo udan refreskuak edo sorbetiak egiteko, nahikua izotz euki egixen. Kanpora be saltzen zan, jakiña: konfitterixetara eta botiketara, batez be. Argazkixan agerketan diranak Goribar auzokuak ei dira. Batzuk Goribargoitti bertakuak: **Frantziska Leanizbarrutia** eta **Esteban Leanizbarrutia** anai-arrebak; **Kaittana Aranburu** — **Santa Kataliñakua** jatorriz eta Estebanen andria zana— eta **Pedro Aranburu**, hau be Santa Katalindarra seguruenik; gaiñera, **Jose Joakin Lizaur**, **Goribar Zaharrekua**-edo, eta **Anjeles Zulueta**. Beste izenik eztagu oraingoz, baiña norbaittek besteren bat ezagutuko baleu, jakin eragin deigula, eta pozik eskertuko geunskio. Esan daigun, azkenik, edurzulo hau orain dala urte gutxi galdu zala, Urrutxuko sakonunia eskonbrerako lurrez eta zakarrez bete zanian.

J. E.

Fotografixia eta argibidiak Jesus Mari Ugarterenak dira.

VICTOR FREIRE e HIJOS

Igeltzeritza

• Erreformak orokorrean • Teilatu eta fatxaden konponketak • Biltegia berezaon

Errekalde 22, Ezk. OÑATI Tfnoa: 78 07 69



URTXIN Loradenda

Lora
•
Landare
•
Keramika
...
Portu Kalea
Tel: 78 22 41

Antxiñako fotografixia



Kubako tabernia

Berrogeitamar urtetik gora dakoin oñatiarrentzat ondo ezaguna izan zan denbora batian **Kubako tabernia**. Ama Bakardadekuaren kalia eguen, Mendiko kalerako sarreran eta Portuko zubixaren onduan. Orain **Xauen** izeneko dendia dago lokal horretan. Fan zan gizaldixaren azken aldera jarrittako tabernia zan eta, izenak erakusten doskun lez, 1870 inguruan Kubako gerran ibilittako txantxikuar batek zabaldu eben: **Frantzisko Arregik**, hain zuzen. Herritarren artian estimaziño haundixa eukan arandegi honek; makiña bat karretero, banastagin, ultzezin, errementari, baserritar nahiz kaletar alkarketan zan bertan, kuartillo bat eranaz, tertulixan jarduteko. Orduko bezeruak asmautako esaera xeble bat be geratu xakun: Makalena eta Zubibarri aldian ultzezin eta errementari ugari izan zan urte askuan; ultzeziñak lanari itxi otzaiñian, forjarixak hasi ziran Zufirianian, Onraitanian eta beste lantegi batzuetan; **Tetuango** errementarixak esaten xaten, Marrueko gerra-aldi batian auzo horretan lanian ziharduen gazte-pillatxua Afrikara eruan ebeillakoedo. Harrezkero Tetuan deittu izan xako paraje horri. Ba, forjarixok, egun guztian sute gixan berotu ondoren, trago bat jotera taberna honetara etorten ziranian, zera botaten ebein: *Gu egunero faten gaittuk Tetuanetik Kubara, itsasua pasau barik.*

Argazkixan ezkerretan, zaragixa eskuetan dakola, ikusten dogun neska gaztia **Leona Arregi Arregi** da. Lehen aittatu dan Frantzisko *kubatarraren* eta **Teresa Arregiren** alabia, 1885ian jaixua eta gerora **Pedro Aiastui**, Askasubiko semiarekin ezkonduko zana. Eztakigu zein dan eskumako aldian begira dakon neskatillatxua; bere marmitta, pitxartxo eta abarrekin esne-billa edota beste erreka-du batzuetara doiala emuten dau. Dotoriak dira, benetan, emakume bixen soiñeko luziak eta orrazkera apaiñak. Eskumako atia tabernarako sarrerria zan eta ezkeraldian eskaparate txiki bat eguen. Aldamenian, Goiko Torrerrako bidiaz bestaldetik agiri dan pareta-zatixa **Kortabarriren** etxe zaharrari zegokixon. Arregitarrak baiño beranduago **Biaindarrak** egon ziran tabernari Kubakuan: **Agapito**, **Asunzion**, **Daniel** e. a., 1958ko San Migeletan tabernia itxi zan arte. Geroztik **Urrutianeko** dendia ipiñi ebein eta azkenengo urte honeittan Xauen dago. Fotografixiak 90 bat urte eukiko dau, seguru asko, eta beheratxuago, plazan, bizi zan **Martin Zuluetak** ataratakua da.

J. E.

Argazkixa M^a Angeles Heredia eta Xabier Zelaiaren bittartzez eskuratu dogu eta argibidiak M^a Luisa, Teresa eta Karmen Aiastuik eta Lurdes eta M^a Karmen Biainek emun doskue. Milla esker guztioiri!